

PUSKARTIREN AMETSA

Behin batean Puskarti, mutil ile horikoa, handia, begi urdinekoa, lotsatia, indartsua eta enpatikoa, puskarti deitzen ziotena, amets batekin esnatu zen.

Amets hori ilargira joatea zen, hurak asmatutako espaziontzi batekin, baina kondizio batekin, ez zuen nahi gasolina erabili, baizik eta puskarrak nahi zuen izatea gasolina bezelakoa.

3 egun geroago...

Puskarti amarekin elkartu zen, ametsari buruz hitzegiteko, hau esan zuen Puskartik: Ama joan ahalgo gara Londresera, Nasara espezifikoki, nasako maisuarekin hitz egin nahi dut nire ametsari buruz kontatzeko. -Esan zuen Puskartik.

Ados nago zure ideiarekin, zukan sinesten dut, lortuko duzu! Orain joango naiz bidaiarako txartelak erostera. -Esan zuen amak.

Eskerrik asko ama. -Eskertu zuen Puskartik.

Aste bat geroago...

Heldu ziren Londresera pozik eta urduri, 2 ordu geroago nasara joan ziren, or zegoen Jose nasako zuzendaria Puskartiri itxoiten.

Kaixo Puskarti! -Esan zuen Josek.

Kaixo Jose!- Erantzun zion Puskartik.

Jose nasara etorri naiz nire ametsari buruz esateko, ez dakit norbaitek esan dizun zeri buruz doan baina orain nik esango dizut, nire ametsa ilargira joatea da, gasolina gabe baina, nire gasolina puskarrak izango dira. Ados zaude? Hasiko gara? -Eskatu zuen Puskartik.

Ados nago, goazen hastera!-Erantzun zuen Josek.

Egunak pasatzen zeudetela espaziontzia hobetzen zegoen, Josek eta Puskartik logo polit bat egin zuten, urdina eta haien argazkiekin oso polita zen eta ontzian jarri zuten.

Ez bakarrik ontzian baizik eta ikurrinean ere, 2 ordu geroago espaziontziari gutxi falta zitzaion puskarrak eruateko tuboa falta zen.

1 ordu geroago...

Eskerrak beingoz amaitu dugula.-Esan zuen Puskartik.

Bai, bai, eskerrak, Puskarti ez duzu uste babarrun txuri batzuk jan beharko zenuela, energia lortzeko?-Galdetu zuen Josek.

Bai, ideia ona da etxera noa, Bihararte!-Agurtu zuen Puskartik.

Bihararte!-Erantzun zuen Josek.

Puskarti etxera heldu zenean babarrun pila bat jaten hasi zen, eta puskar mordoa bota zuen.

Hurrengo egunean...

Urduri nago ama, gaur ilargira joan behar naiz!-Esan zuen Puskartik urduri.

Lasai egon Puskarti, dena ondo joango da.-Erantzun zion amak.

Puskarti espaziontzira sartu zen eta, 1, 2, 3 puuuuffff!

Puskarti eta Jose espaziora heldu ziren eta ikurrina utzi zuten lotuta, argazki eder bat etara ziren ametsa inoz ez asteko.

Puskarti azkar, Lurrera bueltatu behar gara.-Esan zuen Josek.

Bai arrazoia duzu babarrun batzuk jango dut eta bagoaz, ados?-Galdetu zuen Puskartik.

Ados, azkar baina.-Erantzun zuen Josek.

Puskartik etxean bezela babarrunak jaten hasi zen, eta prestatzeko esan zion Joseri. Horrela espaziontzia piztu eta Puskarti puskarrek botatzen hasi zen.

Egun bat geroago...

Jose 5 minutu eta Lurrera heltzen gara.-Esan zuen Puskartik.

Bai, pozik nago hau egiteagatik.-Erantzun zuen Josek.

Lurrera heltzerakoan herriko biztanle denak hor zeuden, omenaldi polit bat egiten Puskarti eta Joseri, alkateak Record Guines izeneko saria eman zion Puskartiri. Puskarti oso pozik jarri zen eta pozez negarrez hasi zen, ondoren bere ama etorri zen zorionak ematera, eta munduko seme onena dela esan zion.

Eta horrela, Puskartik espaziontzia hartu, babarrunak jan eta inoizko puskarrik handienarekin alde egin zuen.

